

Hainbat IDEIA ikasketa honi buruz:

Gu geu gara gure betiko bidaidea. Izan ere, egiten duguna egiten dugula eta goazen lekura goazela, hortxe gaude beti. Horregatik, geure burua ondo ezagutu behar dugu.

Geure burua onartzeko modurik onena, geure burua ezagutzea da. Ez gara larritu behar huts egiten badugu edo gauza batzuk gaizki irteten badira. Horren berri badugu, hobetu dezakedu.

ELKAR EZAGÜTZEN ("IZATEN") IKASTEN DUGU



GEURE BURUA EZAGÜTZEN DUGUNEAN:



- Badakigu nolakoak diren gure sentimenduak eta grinak, eta badakigu besteen sentimendu eta grinetatik bereizten.

- Badakigu zer egiten dugun hobeto eta zer txartoago.

- Onartzen dugu gauza batzuk ez ditugula hain ondo egiten eta ez gara horregatik lotsatzen.

- Badakigu nori gustatzen zaizkion guri gustatzen zaizkigun gauzak egitea, eta badakigu ondo pasatzeko lagunak aurkitzen.

- Gai batean dugun erantzukizuna onartzen dugu eta ez diogu besteari errua leporatzen.

- Badakigu besteak ondo egiten duena aintzat hartzen, eta berarengandik ikasteko prest gaude.



ELKAR EZAGÜTZEN ("IZATEN") IKASTEN DUGU


1. jarduera:



ALTXORRAREN BILA

Piratak izango gara egun batez. Gure inguruan bizi diren pertsonen ezaugarriak aurkitu behar ditugu (ea nolakoak diren nire auzokoak, auzoko dendaria...).

Gure auzoan edo hirian altxor mordoak dago, ondoko ezaugarriak dituen baten bat aurkitu behar duzue soilik:



2. jarduera:

DENOK LOREAK GARA



Etxeko horma bati estalki berdea jarriko diogu, belar kolorekoa. Imajinatuko dugu zelai bateko loreak garela.

Orriak hartu eta lore handiak egingo ditugu, bat gurekin bizi den pertsona bakoitzeko. Ondoren, horma berdean itsatsiko ditugu. Baldintza bakarra: lore bakoitzak lau petalo izan behar ditu gutxienez.

Gure argazkia itsatsiko dugu lore baten erdian, eta besteen erdian gurekin bizi diren pertsonen argazkiak egon behar dira.

Errotuladore lodiak erabiliz, ditugun ezaugarri onak idatzi behar ditugu gure lorearen petaloetan, eta gutxienez bi petalo idatzi gabe utzi.

Zurekin bizi diren pertsonen gogo berotu gauza bera egiteko. Behin hori amaituta, familiaren beste kideen ezaugarri onak idatzi behar dituzue lore bakoitzaren gainontzeko bi petaloetan.

